



LHko 5. mailarako sekuentzia didaktikoa

**Fernando Cuadrado**  
*2012ko urtarrilean berrikusia*

## Lan-eskema

---

**Irakasgaia:** NATURA, GIZARTE ETA KULTURA: INGURUNEAREN EZAGUERA

**Gaia:** Gelako araudia

**Maila:** Lehen Hezkuntza. -5. maila-

**Saio kopurua:** 6 saio

**Proposamenaren testuingurua:**

Gero eta maizago ikusten dira eskoletan diziplina arazoak. Alde honetan Arlo horretan irakasle on erronka nagusienetakoa arauak ezarri, eta betearaztea da. Baina horrek araudi baten zaintzaileak izatera eramaten gaitu askotan.

Ikasleek ez dute parte hartzen araudia egiterakoan, eta kanpoko inposizio (arrotz) bezala hartzen ulertzen dute. Egoera hori hau gainditzeko, ikasleen parte hartzea bultzatu eta euren konpromisoa betearazten lortzen saiatu gaituzke.

**Landuko diren oinarrizko gaitasunak ( jarduerak):**

1. Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna. Jarduerak:
2. Ikasten ikasteko gaitasuna. Jarduerak:2-3-7
3. Matematikarako gaitasuna. Jarduerak:7
4. Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna. Jarduerak:1-2-3-4-8
5. Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna. Jarduerak: 3-6
6. **Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna.** Jarduerak:1-2-3-4-5-6-7-8
7. Giza eta arte/-kulturarako gaitasuna. Jarduerak:1-2-6
8. Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna. Jarduerak: 1-2-3-4-5-7-8

**Helburu didaktikoak:**

1. Eskola-bizitza erraztea.
2. Ikasleen ekarpenekin eskolako barne-bizitza ezarriko arautuko duen araudia egin
3. Araudia jakinarazteko protagonismoa hartzea.
4. Eztabaida antolatzeke, aurretik emandako urratsak betetzea.
5. Iritzi kritikoa garatzea edozein testuren aurrean.
6. Ikasleen partaidetza bultzatzea eskolako barne bizitzan.

**Edukiak:**

- Arazoak ekiditeko edo konpontzeko araudia egin.
- Eztabaidak antolatzeke prozedurak ezagutu.
- Testu mota desberdinak (iritzi-testuak, informatiboak, eta grafikoak)
- Irakurketa kritikoa bultzatu.
- Jarrera aktiboak bultzatu.

**Jardueren sekuentzia:** PUNTUAK: Bai ala ez?

a) Aurkezpena

**“Hasiara: Gaia aurkeztu”**

Sarrera eta motibazioa

Jarduerak: 1etik 2ra

- Bortizkeria egoerak identifikatu.
- Jarrera proaktiboak eta enpatikoak bultzatu

b) Gaia landuz

**“Gaia aztertu”**

Jarduerak: 3tik 5era

- Debatea burutu
- Araudia egin

c) Aplikazioa

**“Nire inguruan eragiten dut”**

Jarduerak: 6tik 8ra

- Horma-irudiak egin.
- Ardurak hartu
- Konpromisoa bereganatu

**Ebaluazioa:**

*Erakusleak:*

1. Ea identifikatzen dituen egoera bortitzak eta elkarbizitzarako eragozleak.
2. Ea egiten dituen ekarpenak eztabaidan.
3. Ea betetzen dituen eztabaidarako urratsak eta errespetatu egiten dituen.
4. Ea betetzen duen barne araudia.

*Tresnak:*

**A) Jardueren sekuentzietan**

- Ebaluazio jarduerak : 3-6-7-8

**B) Irakasleen behaketatik lor daitezkeenak**

- Jarraipen ariketa ----- ADITZA
- Ikasleen jarrerak eta ekarpenak(.) \_\_\_\_\_ ADITZA
- Lan taldean ekarpenak egiten ditu, eta besteenak errespetatzen ditu.

## Arauk

Lan hau egiteko taldeka antolatuko dugu ikastaldea. Launaka eseriko zarete, taldeko partaide guztiok idatzi behar dituzue zuen koadernoan, hartzen dituzuen akordioak. Beraz, lanaren oinarria akordioetara ailegatzea eta horiek jasotzea da.

### 1.jarduera: Sarrera eta motibazioa

#### **“-Txikizioa Mendilorriko (Nafarroa) eskola publikoan”.**

Hamar adingabe denuntziatuak Elorri Eskola Publikoan sartu eta txikizioa eragiteagatik.

Erasotzaileak geletan sartu ziren sarrerako atea apurtu ondoren. Barruan zirela, aresak apurtu, ordenagailu bat eta bost pantaila hondatu, eta su-itzalgailu hustu zituzten. Horrez gain kalteak sortu zituzten hiru leihotan, garbiketa armairuan eta botikinean, eta barrualdean nahasketa sortu zuten.



Ikus ezazu nola gelditu zen Haur Hezkuntzako gela hau .Goiko berria irakurri eta gero ,eta argazkia behatu ondoren, eman erantzuna ondorengo galderari:

- Zer gertatu da?
- Non gertatu da?
- Zer agertzen da argazkian? Deskriba ezazu.

- Nortzuk eragin dute egoera hori?

Ondoren azaldu itzazu zure iritziak, beheko galderari erantzunez.



- ❖ Ikusi duzu inoiz horrelako zerbait zure ikastetxean?
- ❖ Entzun duzu ea lapurretarik edo antzeko zerbait gertatu den zeure ikastetxean, edo ezagutzen duzun beste ikastetxeren batean?

Zalantzarik ez dago:, gertaera hori ez da dela ezbeharra izan, gela horretan dauden kalteak ez dira berez sortu. Horrelako gertakizunak denok gaitzesten ditugu. Adieraz ezazu zure iritzia gertakari honen aurrean. Horretarako har itzazu kontuan honako irizpide hauek:



- ❖ Nortzuk dira kaltetuak?
- ❖ Zeintzuk izango dira ondorioak?
- ❖ Zer esango zenieke eraso egin dutenei, horrelakorik berriro ) egin ez dezaten?

## 2. jarduera: Bortizkeria egoerak identifikatu

Aurreko jardueran bortizkeria adibide bat ikusi dugu. Baina hori ez da eskolako bizitza hondatu dezakeen jazoera bakarra. Batzuetan gela barruko giroa ez da erraza izaten eta istiluak sortu egiten dira. Begira honako irudi hau:



- Zer ari da gertatzen? (Adieraz ezazu marrazkian ageri dena. Begira ezazu marrazkia arreta handiz eta esan ume bakoitzak non jotzen duen bestea eta zer ondorio etor litezkeen.

- Lortuko dute arazoa konpontzea?
  - Bai (zergatik?)
  - Ez (zergatik?)



- Nola konpondu daitezke arazoak? Ondorengo erantzunen artean aukeratu zure gelakideen artean ematen direnak:

	Bai	Ez
1-Batak besteari irainak esanez		
2-Jipoi bat emanez		
3-Lagunak bilatuz eta bestea baztertuz		
4-Irakasleari esanez		
5-Beste modu batez (Apuntatu zein)		

Seguru nago horrelakoak ikusi dituzula inoiz. Egin ezazu zerrenda bat azaltzeko horrelako gertaerak zergatik ematen diren. Adibide bat emango dizut:

- Neska edo mutil batek beste inor iraintzen duenean.
- ...
- ...

Taulan azaltzen dira arazoak konpontzeko hainbat bide. Behealdean idatz itzazu bakoitzaren abantailak edo desabantailak

- 1-
- 2-
- 3-
- 4-
- 5-

### 3. jarduera: Eztabaida

#### Sarrera honako hau da (irakur ezazu astiro):

Eskolan ebakuazioaren simulazioa egin behar da.

Irakasleak erakutsi digu nola jokatu behar den ebakuazio bat egiten denean. Zera esan digu: eskolan ezbehar bat gertatzen bada, eta arriskua baldin badago, eskola hustu behar dugula; ebakuatu, ahalik eta lasterren, baina modu ordenatuan. Ondoren kartel batzuk atera ditu, eta komentatu ditugu. Kartelak honako hauek izan dira:




Gero hasi gara eztabaidatzen karteletan agertzen diren aginduek zertarako balio duten. Denon artean, ondorio batera ailegatu gara: kartelotan irakurtzen diren aholkuak ebakuazioa ondo egiteko “arauak” direla.

Soukainak, gure gelako neska marokoar batek, oraindik ez ditu euskarazko hitz guztiak ulertzen, eta galdetu du ea zer esan nahi duen “arau” hitzak.

Hara, gure andereñoak zer egin duen!: Ordenagailua piztu, Interneteko helbide bat idatzi du (begiratu helbide barran) eta arbel digitalean pantaila hau ikusi dugu:





Berak aukeratu du esanahiaren zati hau:

*“zerbait nola egin behar den adierazteko argibidea.”*

Denok ulertu dugu zer esan nahi duen arau hitzak.

Zuek badakizue zer diren *arauak*? Eta *araudia*?

Andereñoak esan du arauak ez direla soilik ebakuazioetarako. Egoera askotan direla beharrezkoak.

Ea zuek zer pentsatzen duzuen!!



## Arauk beharrezkoak dira? Zertarako balio dute? Noiz behar ditugu?

Goian agertzen den gaiari buruzko eztabaida bat antolatuko dugu. Arauez hitz egingo dugu.

Eztabaida honela egingo dugu:

1- Lehenik, zenbait ardura eta arduradun izendatuko ditugu:

- Idazkaria

Harluxet Hiztegi Entziklopedikoa - Windows Internet Explorer

http://www1.euskadi.net/harluxet/

Archivo Edición Ver Favoritos Herramientas Ayuda

Erakunde, elkarte edo batzorde

idazkari (iz.)

iz. 1. Erakunde, elkarte edo batzorde batean, bilera-agiriak idazteko, gainerako izkribuak prestatzeko eta haietaz arduratzeko egitekoa duen kidea. Udaleko idazkaria. 2. Norbaiti eskutitik idazten dizkion eta bulego-arazoetan laguntzen dion enplegatua. Zuzendariaren idazkaria. • estatu-idazkari. Frantzian eta Espainian, ministro edo lehen ministro baten agindupean dagoen kargu publikoa; EEBBetan, kanpo-arazoetarako ministroa; Britainia Handian, ministroa; Eliza Katolikoan, aita sailduaren ondotik lehen ministro kargua betetzen duen kardinala. || idazkari nagusi. Zenbait erakunde, alderdi politiko edo sindikatutako buru eragilea. NBEko idazkari nagusia.

[Atzera](#)

**“Erakunde, elkarte edo batzorde batean, bilera-agiriak idazteko, gainerako izkribuak prestatzeko eta haietaz arduratzeko egitekoa duen kidea.”**

- Moderatzailea

Harluxet Hiztegi Entziklopedikoa - Windows Internet Explorer

http://www1.euskadi.net/harluxet/

Archivo Edición Ver Favoritos Herramientas Ayuda

Bilera bat bideratzen duen per

Traducir

GreenCard Tonos 500€

Gente - Windows Live Harluxet Hiztegi Entzik...

**hiztegi entziklopedikoa**

Hiztegi Entziklopedikoa

Bilatu nahi duzun hitza edo hitz-zatia sartu:

moderatzaile Bilatu

Adb: Hiztegia, etxe, Euskal Herria, Mundua, ...

Non bilatu nahi duzu?

Testuetan  Irudietan

Beste adibide bat

ETESKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

**moderatzaile**


iz. 1. **Bilera bat bideratzen duen pertsona.** 2. FIS. Fisio nuklear kontrolatuetan neutroi askeen abiadura moteltzen duen substantzia (adib., ur astuna, grafitoa), fisiozko katen erreakzioa posible egiten duela.

[Atzera](#)

Internet 100%

**“Bilera bat bideratzen duen pertsona.”**

- Bozeramailea:



“Nor baiten edo giza talde baten izenean hitz egiten duen pertsona.”

### Eztabaida nola egin.

Edozein eztabaidatan kontuan hartu behar dira ondorengo aholkuak:

- **Parte hartzearen denbora:** Minutuak (eta batzuetan segundoak) neurtu behar ditu moderatzaileak, eztabaida edo mahai-inguruan dauden guztiek hitz egiteko denbora eta aukera berdinak izan ditzaten. Batzuetan ez da derrigorrezkoa minutuak neurtzea. Baina hala eta guztiz, denbora erlojuz neurtzen ez bada ere, gutxienez denek hitz egiteko denbora berdintsua izan behar dute.
- **Txandak errespetatu:** Pertsona bik batera hitz egiten badute, euren mezua ez da ulertzen. Beraz hitz egiteko txandak banatu behar dira, eztabaida ordenatua izan dadin.

- **Gaiari heldu.** Eztabaidan soilik hitz egin behar da adostutako gaiaz; beste gai batez hitz egiten bada eztabaidatik kanpo gelditzen gara.
- **Besteak errespetatu:** eztabaida bat antolatu dugu. Hitz hori bitxi samarra da (begira nondik datorren: "ez da bai da"). Eztabaida egiterakoan, besteak errespetatzea ezinbestekoa da. Horrela egiten ez bada, eztabaida borroka bihurtu daiteke. Eztabaidaren helburua ideiak azaldu eta defendatzea da.

### Jarraitu behar diren urratsak honako hauek dira:

**Lehenago pausoa** da moderatzailea eta idazkaria hautatzea. Idazkariak jasoko ditu akordioak eta moderatzaileak debatearen zuzentasuna zainduko du.

**Bigarren pausoa** da taldeka biltzea eta izendatzea talde bakoitzeko bozeramailea, hura izango da taldearen iritzia defendatuko duena beste taldeen aurrean.

Talde bakoitzak 10 minutu izango ditu pauso horiek emateko, gogoeta egin eta taldearen iritzia jasotzeko.

**Hirugarren pausoa** eztabaida bera egitea da,; moderatzaileak eta idazkariak euren papera beteko dute.

Eztabaidarako honako hauek hartu behar dira kontuan:

Taldean adostutako ideiak apuntatu behar dira orri batean., gero bozeramaileak irakurri ahal izateko. Horrela eginez gero, ez zaigu ezer ahaztuko.



Gure ideiak adierazi eta defendatzeko testu bat egin nahi dugunean, honako hauek hartu behar ditugu kontuan:

- ❖ Ideia guztiak argi azaldu behar dira
- ❖ Gure ideia horiek zuzenak direla frogatu behar dugu. Hau da, esan behar duzue zergatik diren onak edo txarrak adostu dituzuen ideiak. Argumentuak eman behar dituzue
- ❖ Honako esapideak erabili behar dira:
  - Nik (guk) uste dut (dugu) ...
  - Nire (gure) ustez ...
  - Gai honetaz pentsatzen dut (dugu) ....
  - ...

Komeni da testuan ideia ezberdinak apuntatzea, argumentu bat baino gehiago izatea. Horrela egiten baduzue, zuen iritzia hobeto defendatuko dituzue.

#### 4. jarduera. Bizikidetzako araudia egin

Aurreko jardueretan esan dugu batzuetan elkarbizitza ez dela erraza izaten, oztopoak eta arazoak sortzen direla. Aztertu ditugu arauak eta horien beharra. Orain gure eginkizuna elkarbizitzarako araudi bat egitea izango da.

Ikastetxean gaude beraz, ikastetxeko zenbait esparru eta jarduera bereiziko ditugu.

##### ➤ Gela barruan

- Materiala
  - Guztiona
  - Pertsonala
    - Zaindu
    - Ordenatu
- Lan giroa: azalpenak, ariketak, talde-lanak,...
- Hitz egiteko txandak
- Motxilak (non utzi, zelan,..)
- Liburuak, koadernoak
- Laguntza (nola eman besteei)
- Birziklapena -papera-
- Argiak amatatu - argindarra aurreztu-
- ...

##### ➤ Gelatik kanpo

- Pasabideak: nola joan, isiltasuna (zarata ez atera, besteak ez gogaitzeko)
- Eskailerak: nola jaitsi
- Gela bereziak: liburutegia, informatika gela, ingeleseko gela,...
- Jolastokia: jolasguneak (saskibaloiko, futboleko, ... esparruak errespetatu), ume txikiak, zakarrontziak, ...
- Irteerak: autobusa, bisita lekuak,...
- Ebakuazioak: seinaleak eta irakasleen argibideak jarraitu
- Komunak: garbitasuna, txorrotak itxi ura aurrezteko,...

- Ordutegia (garaiz heldu)
- Lagunekin nola jokatu
- ...

Goian dituzuen esparruak eta jarduerak kontuan izanda, egin ezazue taldeka araudi bat. Ez ahaztu akordioetara ailegatzea beharrezkoa dela.

## 5. jarduera: Arauen onurak identifikatzen

Arauk asmatu ditugu, orain idatziko dugu arau bakoitzarekin zer irabazten den.

Arauen aplikazioa argiagoa izan dadin, honako hau egingo dugu: arauen zerrenda egingo dugu, arau bakoitzarekin zer irabazten den apuntatuko dugu, eta arau bakoitza errespetatzeko egin daitekeena, eta ezin daitekeena idatziko dugu (adibide bat, eredu bat, ipiniko dizuet):

Araua	Zer irabazten den	Jarduera positiboak	Jarduera negatiboak
1-Pasabideetan isiltasunez ibili	Inork ez gaitu gogaituko lanean ari garela	Ahopeka hitz egin	Oihuka eta korrika joan
2-			
3-			
...			



## 6. jarduera: Horma-irudiak egin, araudiaren publizitatea zikloaren esparruan.

Horma-irudiak egingo ditugu gelako arauak irudikatuz. Esparru ezberdinetan jarriko ditugu: komunetan, eskaileretan, gela barruan, jolastokian,...

Irudi horietan portaera zuzenak bultzatzeko ikonoak, edo marrazkiak, egingo ditugu. interneten bilatu ahal ditugu. Marrazkiek/argazkiek argiak izan behar dute, denontzat ulergarriak.

Prozedura: bilatu argazkiak interneten, kopiatu eta testu prozesadorean itsatsi, gero testua idatzi eta inprimatu esparru desberdinetan ipintzeko.

Adibideak:

- Isiltasuna eskatzeko keinu arrunt eta argia aukera dezakegu, eta irudi bat egin:



- Laguntasuna irudikatzeko hemen duzue adibide bat:



Eztabaida egiteko erabili ditugun taldeetan lan egingo dugu. Talde bakoitza zenbait araren ikonoak –kartelak– egiteaz arduratuko da.

## 7. jarduera: Ardurak banandu eta jarraipena egin

Arauk betetzeko asmoz egin dituzue. Baina arau guztiez ezin gara denok batera arduratu. Beraz ardurak bananduko dituzue gelakideen artean.

Egin ezazue proposamen bat, bakoitzak zeintzuk ardura hartuko dituen adierazteko. Batzuetan arduradun bat baino gehiago beharko duzue. Ardurak, adibidez, hauek izan daitezke: leihoak eta ateak itxi, aulkiak ordenatu, komuneko txorrotak itxi, ...

Kontrol fitxetan -arauak betetzen ditugun ala ez ikusiko dugu-.

Egin ordenagailuan antzeko taula bat, eta astero-astero bete ezazue.

Araua *	1. astea **	2. astea **	3. astea **	4. astea **

\* Idatzi arauak zutabe honetan

\*\* Idatzi arauaren betetze-maila azken lau asteotan. Horretarako, erabil itzazu ondorengoak i:

- bai,
- batzuetan
- gehienetan
- ez

## 8. jarduera: Konpromisoa sinatzen dugu

Autodiziplina da behealdean dagoena. Autodiziplina hitzak, nork bere buruari ezartzen dion diziplina esan nahi du :

Ez da nahikoa arauak betetzea beste norbaitek esaten digulako edo begiratzen duelako ea betetzen ditugun. Arauak onak direla uste badugu bete behar ditugu onuragarriak direlako, gure elkarbizitza errazten dutelako.

Beraz, azken jarduera-arauak beteko ditugula adierazten duen konpromisoa sinatzea da.

Bete ezazue dokumentu hau eta sinatu. Edozein dokumentu sinatu aurretik, ondo irakurri behar duzu, eta gero pentsatu ados zauden ala ez bertan jartzen duenarekin. Ados bazaude sinatu ezazu.



.....-ko ikastetxeko  
 (ikastetxearen izena)

barne araudia errespetatu eta bete egingo dut, eguneroko eskola-  
 bizitzarako onuragarria dela uste baitut

Nik, .....-k, konpromiso hau irakurri  
 (sinatzailearen izen-deiturak)

eta onartzen dut:

\_\_\_\_\_

(Sinadura)